

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Behin betiko onestea udalaren 11 zenbakiko zerga ordenantzaren 6. eranskinaren aldaketa; eranskin horrek arautzen du erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa, udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatik ordaindu beharrekoa**

Udalbatzak, 2021eko otsailaren 25eko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa, udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatik ordaindu beharrekoa arautzen duen 11 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 6. eranskinaren aldaketari (2021/S062/1 espedientea), eta 2021eko martxoaren 10eko 28 zenbakiko ALHAOn eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17-3 artikuluan. Horrela, bada, jendarean jartzen da zerga ordenantza horren testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duenak) 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Hona hemen testua hitzez hitz:

#### **UDALAREN 11 ZERGA ORDENANTZAREN 6. ERANSKINA, AMURRIOKO JABARI PUBLIKO MAHAIEKIN ETA AULKIEKIN MODU PRIBATUAN ERABILTZEAGATIK EDO MODU BEREZIAN APROBETXATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

**Artikulu bakarra. Udalerriko jabari publikoan mahai hankabakarrak, mahaiak, aulkiak eta antzekoak jartzeagatik tarifa hauek ordaindu behar dira:**

1. Albotik mugatuta edo multzo bakarra eratuz zenbait elementu jartzeagatik sei hilerako emandako baimenetarako, tarifa hauek ezarriko dira, instalazioak kokatzen diren zerga zonaren arabera JEZaren ondorioetarako (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga):

- 1. eta 2. zerga zonetan: 3,45 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontzi, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).
- 3. zerga zonan: 2,63 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontziak, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).
- Gainerako zerga zonetan: 1,82 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontzi, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).

2. Albotik mugatuta edo multzo bakarra eratuz zenbait elementu jartzeagatik urtebeterako emandako baimenetarako, tarifa hauek ezarriko dira, instalazioak kokatzen diren zerga zonaren arabera JEZaren ondorioetarako:

- 1. eta 2. zerga zonetan: 2,59 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontzi, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).
- 3. zerga zonan: 1,98 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontziak, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).
- Gainerako zerga zonetan: 1,37 euro mahai, mahai hankabakar, aulki, karpa, loreontzi, eguzkitako eta antzekoekin okupatzen den metro karratuko (edo zatikiko) hilean (edo zatikian).

3. Albotik mugatu gabe edo multzo bakarra eratzen ez duten mahaiak, mahai hankabakarrak, aulkiak, eguzkitakoak eta antzekoak jartzeagatik sei hilerako emandako baimenatarako, tarifa hauek ezarriko dira, instalazioak kokatzen diren zerga zonaren arabera JEZaren ondorioetarako:

- 1. eta 2. zerga zonetan: mahai, mahai hankabakar, aulki, eguzkitako eta antzekoak jartzeagatik 13,79 euro mahai bat eta lau aulki dauden multzo bakoitzeko (ezin da zatitu) hilean (edo zatikian).

- 3. zerga zonan: mahai, mahai hankabakar, aulki, eguzkitako eta antzekoak jartzeagatik 10,53 euro mahai bat eta lau aulki dauden multzo bakoitzeko (ezin da zatitu) hilean (edo zatikian).

- Gainerako zerga zonetan: mahai, mahai hankabakar, aulki, eguzkitako eta antzekoak jartzeagatik 7,26 euro mahai bat eta lau aulki dauden multzo bakoitzeko (ezin da zatitu) hilean (edo zatikian).

4. Albotik mugatu gabe edo multzo bakarra eratzen ez duten mahaiak, mahai hankabakarrak, aulkiak, eguzkitakoak eta antzekoak jartzeagatik urtebeterako emandako baimenatarako, tarifa hauek ezarriko dira, instalazioak kokatzen diren zerga zonaren arabera JEZaren ondorioetarako:

- 1. eta 2. zerga zonetan: mahai, mahai hankabakar, aulki, eguzkitako eta antzekoak jartzeagatik 10,36 euro mahai bat eta lau aulki dauden multzo bakoitzeko (ezin da zatitu) hilean (edo zatikian).

- 3. zerga zonan: mahai, mahai hankabakar, aulki, eguzkitako eta antzekoak jartzeagatik 7,92 euro mahai bat eta lau aulki dauden multzo bakoitzeko (ezin da zatitu) hilean (edo zatikian).

- Gainerako zerga zonetan: mahai, mahai hankabakar, aulki, eguzkitako eta antzekoak jartzeagatik 5,46 euro mahai bat eta lau aulki dauden multzo bakoitzeko (ezin da zatitu) hilean (edo zatikian).

Udalak erabakiko du, lizentziaren eskaera aztertuta, nola kargatu behar den eranskin honetan arautzen den okupazioa: multzo homogeenoa modura (1. eta 2. tarifak) edo mahai bat eta lau aulki dauden multzo modura (3. eta 4. tarifak).

Lizentziak berez luzatuko dira urtero, interesdunak berriaz uko egin ezean. Lizentzian ezartzen den aldiagatik kobratuko da tasa; aldirik ezartzen ez bada, gutxienez sei hileko okupazioa kargatuko da, benetan gertatzen dena gorabehera.

Tasa okupaziorako lizentzia ematen denean sortuko da; lizentziarik ez badago, lurzorua okupatzen denean sortuko da.

Tasa hau ordaindu behar dute bide publikoak testu honetan aipatzen diren elementuekin okupatzeko lizentzia eskuratzen dutenek, bai eta lizentziarik gabe bide publikoa halako elementuekin okupatzen dutenek ere. Ordaindu beharra dute, ordea, okupatzen duten establezimenduetako jabeek edo titularrek.

Eskatzen diren kuotak ezin dira murriztu eta ez dira hainbanatuko aprobetxamenduaren iraupenaren arabera; salbuespena: lizentzia berrien kuotak hainbanatu ahal izango dira, eskaera garaiz eta behar bezala aurkeztuz gero.

Lizentziei baja emateko eskaerek eta lizentzia eskualdatzeko eskaerek Udalari berriaz eta idatziz jakinarazten zaien egunetik aurrera sortuko dituzte ondorioak.

Ez dute tasa ordaindu beharrik edukiko, harrera eta ekitaldi publikoetan agintari eta erakunde publikoen erabilerarako diren instalazioek eta hertsiki ongintzarako izanik udalak hala adierazten dituenek.

Udalaren edo interes orokorreko beharizanengatik edo hirugarrenen ezinbesteko afekzioengatik, aprobetxamenduaren titularrek ezin badute okupatu hamabost egun natural baino gehiagotan, zerga likidazio berriak egingo dira, negatiboak, txosten teknikoa egin ondoren hasieran egindakoak osatzeko eta aprobetxamendua behar bestekoa ez dela izan kontuan hartzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA Aldi baterako eteten da udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatik erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziengatiko tasa arautzen duen 11 zenbakiko udal ordenantza fiskalaren 6. eranskinaren aplikazioa, 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte.

AZKEN XEDAPENA. Udal jabari publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeagatiko erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasa arautzen duen 11 zenbakiko udal ordenantzaren 6. eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da hura aldatzea edo indargabetzea onetsi arte.

Amurrio, 2021eko apirilaren 29a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*